

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Ortziren zaldiak*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Hirukoitzetik lehena, naiz eta Belatzen baratza sailaren 7.a osatu.

Bertako Ula eta Uta flamendarrak dira. Hoiiek Burgira datoz, zeren sorgin denbora baita, itxura denez, eta erotikaren hegaletan *chambre d'amour*-en antolakizuna kontatuz hasten da. Egia esan, ulertuko bada eraskinez datorren hiztegiara maiz begiratu beharra aurkituko dugu, irakurketa etenaz lehendik berez dakarren ulerkaiztasuna sakonago nabaritzuz.

Izenetatik ohar gindezke nor zein den; baina, hala ere, hizlariak, elkarrizketak mailaz gora doazen neurrian heleno hitzez gehiago zerbitzen dira; eta, alderantziz, mailaz behera, bizkaierara ez ezik «Bidebarrietako euzkerea lebienera».

Erhaztunaren jasotzailez bukatuko da.

Honek bere hiztegiak gainera beste eraskin bat dakar, bertan, geographi izen zerrenda dator eta oso beharrezko ikusten dugu zerbait ulertu nahi duenarentzat.